

**NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKAGAI POLITIKAKO  
SAILBURUORDETZA. VICECONSEJERÍA DE  
AGRICULTURA, PESCA Y POLÍTICA ALIMENTARIA**

*COVID-19ari aurre egiteko plana, Elikaduraren Balio Katerako  
1.Neurria*

**01 TXOSTENA, COVID-19AK  
ELIKADURAREN BALIO KATEAN IZAN  
DUEN INPAKTUAREN GAINEKOA**

2020ko ekaina

Dokumentua / Documento:	COVID-19ak Elikaduraren Balio Katean izan dituen Ondorioen Jarraipena
Proiektua / Proyecto:	COVID-19ari aurre egiteko plana, Elikaduraren Balio Katerako 1.Neurria. COVID-19aren ondorioen Jarraipenerako Batzordea
DokumentU mota / Tipo de documento:	<b>01 TXOSTENA</b>
Data/Fecha	2020ko ekaina

## AURKBIDEA

<b>1</b>	<b>SARRERA</b> .....	<b>5</b>
<b>2</b>	<b>TESTUINGURU EKONOMIKOA</b> .....	<b>6</b>
<b>3</b>	<b>EUSKADIKO EGUNGO EGOERA</b> .....	<b>10</b>
3.1	BARNE PRODUKTU GORDINA.....	10
3.2	ELIKADURA ETA EDARIEN INDUSTRIA .....	10
3.3	ELIKAGAIEN ETA EDARIEN INDUSTRIAKO PREZIOAK .....	13
3.4	SALMENTEN INDIZEA.....	15
3.5	AZALERA HANDIETAKO SALMENTAK .....	16
3.6	GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIATUAK EAËN .....	17
3.7	KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA.....	18
3.8	EGOERAREN LABURPENA .....	19
<b>4</b>	<b>BARRUKO DIAGNOSTIKOA</b> .....	<b>20</b>
4.1	INKESTAREN PARAMETROAK.....	20
4.2	INKESTAREN EMAITZAK .....	22
4.2.1	Administrazioa eta pertsonen kudeaketa.....	22
4.2.2	Ekoizpena eta erosketak .....	22
4.2.3	Logistika .....	23
4.2.4	Finantzak.....	23
4.2.5	Komertziala eta marketina.....	23
4.2.6	Kalitatea eta I+G+b .....	24
<b>5</b>	<b>OSTALARITZA, GEHIEN ERAGINDAKO SEKTOREA</b> .....	<b>25</b>
<b>6</b>	<b>KONTSUMO JOERAK ETA KONTSUMOKO INPAKTUA</b> .....	<b>26</b>
6.1	EROSKETA SASKIAREN BILAKAERA .....	26
6.2	BANAKETA KANALEN PORTAERA.....	29
6.3	KONTSUMITZAILEEN PROFILA.....	31
6.4	KONFINAMENDU ONDORENGO KONTSUMO AURREIKUSPENAK .....	32
<b>7</b>	<b>AMIA ANALISIA</b> .....	<b>33</b>
<b>8</b>	<b>TAULA ETA GRAFIKOEN ZERRENDA</b> .....	<b>34</b>



## 1 SARRERA

---

COVID-19ak eragindako ondorioei aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak hartu dituen neurrietako bat izan da Jarraipen Batzorde bat eratzea, EBK monitorizatzeko eta haren gaineko ezagutza sortzeko, gero nekazaritzako elikagaien euskal sektorearen babeserako eta laguntzarako politika publikoen definizioan erabiltzeko.

Horretarako, sakon aztertuko dira hainbat ezagutza eremu (merkatuak, produktuak, gobernantza ereduak, finantzaketa, posizionamendua, tresna publikoak, etab.), COVID-19 fenomenoaren inpaktua eta epe labur, ertain eta luzeko ondorioak etengabe dimentsionatuz eta baloratuz.

Jarraipen Batzordea sektorearekin elkartzeko eta lan egiteko gune bat da, eta monitorizazio ahalmenak elkartu eta txosten honetan jasotzen denaren moduko ezagutza sortu ahal izateko.

2020an progresiboki landuko diren hainbat dokumentuetako lehena da txosten hau, eta bere helburua da, jada esan dugun moduan, informazio baliotsua eta laguntzarako informazioa sortzea, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak bultzatu beharko dituen neurriak egituratzeko.

Esan behar da denborak aurrera egin ahala egoera aldatuz doala eta txosten honen erdiko zatia konfinamenduaren unerik larrienean, 2020ko apirilean hor nonbait, egin zen inkesta bati buruzkoa dela.

## 2 TESTUINGURU EKONOMIKOA

---

Koronabirusaren pandemia astindu handia izan da, eta oso ondorio sozioekonomiko larriak ekarri ditu munduan. EBko ekonomiak proportzio historikoko atzeraldia erregistratuko du aurten. Europako Batzordeak 2020ko udaberriko aurreikuspen ekonomikoen arabera, EBko ekonomia %7,4 uzkurtuko da 2020an, eta 2021ean ez da erabat suspertuko, orduan ekonomiak %6 inguru aurrera egitea espero baita. Azken aurreikuspen horiek 2019ko udazkenean egindakoetatik 9 puntu portzentual beherago kokatzen dira.

Estatu kide bakoitzean, pandemiak herrialdean duen bilakaerak, ekonomiak duen egiturak eta egonkortzeko politikek aplikatzeko azkartasunak markatuko dute ekonomiaren susperraldia, eta berarekin interdependentziarik handiena duten Estatu kideen susperraldiaren dinamikaren menpe ere egongo da susperraldi hori.

Euskadirako aurreikuspen ekonomikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren aurreikuspenek erakusten dute euskal ekonomia -%3,6 uzkurtuko dela 2020an, eta %2,6 handituko dela 2021ean. Lan merkatuko 2020ko aurreikuspenei dagokienez, enpleguak urteko batez bestekoan 1,7 puntu behera egingo duela aurreikusten da, eta horrek esan nahi du 17.000 enplegu suntsituko direla, langabezia tasa %11,4an utzita. 2021ean, berriz, enpleguak 1,6 puntu gora egingo luke, eta horrek 15.000 enplegu sortzea esan nahiko luke. Horrek utziko luke %10 baino tasa txikiagora bueltatzen (%9,6koa).

Elikaduraren Balio Katea (aurrerantzean EBK) osatzen duten jardueretan Euskadirekin elkarrekiko loturarik handiena duten ekonomiek %8 baino gehiago egingo dute atzera 2020an. Horien adibideak dira Frantziaren eta Erresuma Batuaren kasuak, BPGd-ean %8 baino gehiagoko beherakadak aurreikusten baitituzte, eta Espainiako eta Italiako ekonomiak, %9,5 eroriko baitira. Alemania, Portugal eta Herbeherak izango dira horri aurre egiteko ahalmenik handiena edukiko duten bazkide komertzialak, %7 baino gutxiago eroriko baitira (%6,5-%6,8). 2021ean, jarduera ekonomikoak susperraldi bat edukiko du, baina ez da erabatekoa eta hainbat abiaduratan gertatuko da.

1 Taula.- Barne Produktu Gordinaren bilakaera Europan (Aldaketaren %)

	5-year average				Spring 2020 Forecast		
	2011-15	2016	2017	2018	2019	2020	2021
<b>Spain</b>	<b>0.0</b>	<b>3.0</b>	<b>2.9</b>	<b>2.4</b>	<b>2.0</b>	<b>-9.4</b>	<b>7.0</b>
<b>France</b>	1.0	1.1	2.3	1.7	1.3	<b>-8.2</b>	<b>7.4</b>
<i>P.M.: United Kingdom</i>	2.0	1.9	1.9	1.3	1.4	<b>-8.3</b>	<b>6.0</b>
<b>Germany</b>	1.7	2.2	2.5	1.5	0.6	<b>-6.5</b>	<b>5.9</b>
<b>Italy</b>	-0.7	1.3	1.7	0.8	0.3	<b>-9.5</b>	<b>6.5</b>
<b>Portugal</b>	-0.8	2.0	3.5	2.6	2.2	<b>-6.8</b>	<b>5.8</b>
<b>Netherlands</b>	0.8	2.2	2.9	2.6	1.8	<b>-6.8</b>	<b>5.0</b>

2 Taula.- Guztirako inbertsioaren bilakaera Europan (Aldaketaren %)

	5-year average				Spring 2020 Forecast		
	2011-15	2016	2017	2018	2019	2020	2021
<b>Spain</b>	<b>-2.0</b>	<b>2.4</b>	<b>5.9</b>	<b>5.3</b>	<b>1.8</b>	<b>-20.7</b>	<b>10.3</b>
<b>France</b>	0.5	2.7	4.7	2.8	3.6	<b>-13.3</b>	<b>14.0</b>
<i>P.M.: United Kingdom</i>	2.9	3.6	1.6	-0.2	0.6	<b>-14.3</b>	<b>11.5</b>
<b>Germany</b>	2.2	3.8	2.4	3.5	2.6	<b>-5.8</b>	<b>5.9</b>
<b>Italy</b>	-3.6	4.0	3.2	3.1	1.4	<b>-14.2</b>	<b>13.0</b>
<b>Portugal</b>	-5.2	2.5	11.5	5.8	6.3	<b>-8.6</b>	<b>8.9</b>
<b>Netherlands</b>	4.7	-7.3	4.2	3.2	5.3	<b>-11.2</b>	<b>5.9</b>
<b>EU</b>	<b>0.8</b>	<b>3.3</b>	<b>3.7</b>	<b>2.9</b>	<b>5.7</b>	<b>-13.2</b>	<b>9.7</b>

Pandemia ondorio larriak edukitzen ari da lan merkatuan. Aurreikusten da EBN langabezia tasa %6,7tik %9ra igoko dela 2019tik 2020ra bitartean, eta gero, 2021ean, %8raino jaitsiko dela. Estatu kide batzuetan langabeziak askoz ondorio larriagoak edukiko ditu. Esaterako, Espainiako Estatuaren kasua, bere langabezia tasak %14tik %19 ingurura igoko baita 2019tik 2020ra bitartean. Frantziak eta Italiak ere egin beharko diete aurre krisi honek ekarriko dituen langabezia tasa handiei (%10 eta %12 inguru, hurrenez hurren), eta Erresuma Batua, berriz, azken krisi finantzarioaren ondoren erregistratu zituen langabezia tasetara itzuliko da.

3 Taula.- Enpleguaren hazkundera Europan (%)

	5-year average	Spring 2020 Forecast					
	2011-15	2016	2017	2018	2019	2020	2021
<b>Spain</b>	<b>-1.4</b>	<b>2.8</b>	<b>2.8</b>	<b>2.5</b>	<b>2.3</b>	<b>-8.7</b>	<b>6.1</b>
<b>France</b>	0.3	0.5	0.9	1.0	1.3	<b>-9.1</b>	<b>10.0</b>
<i>P.M.: United Kingdom</i>	1.4	1.5	1.0	1.2	1.1	<b>-2.7</b>	<b>1.5</b>
<b>Germany</b>	1.0	1.2	1.4	1.4	0.9	<b>-0.9</b>	<b>0.6</b>
<b>Italy</b>	-0.6	1.4	0.8	0.8	0.3	<b>-7.5</b>	<b>5.5</b>
<b>Portugal</b>	-1.2	1.6	3.3	2.3	0.8	<b>-3.4</b>	<b>2.7</b>
<b>Netherlands</b>	0.0	2.1	2.2	2.6	1.8	<b>-2.4</b>	<b>1.4</b>
<b>EU</b>	<b>0.1</b>	<b>1.3</b>	<b>1.6</b>	<b>1.4</b>	<b>1.0</b>	<b>-4.4</b>	<b>3.3</b>

4 Taula.- Langabeziaren bilakaera Europan (%)


	5-year average	Spring 2020 Forecast					
	2011-15	2016	2017	2018	2019	2020	2021
<b>Spain</b>	<b>23.8</b>	<b>19.6</b>	<b>17.2</b>	<b>15.3</b>	<b>14.1</b>	<b>18.9</b>	<b>17.0</b>
<b>France</b>	10.0	10.0	9.4	9.0	8.5	<b>10.1</b>	<b>9.7</b>
<i>P.M.: United Kingdom</i>	7.0	4.8	4.3	4.0	3.8	<b>6.7</b>	<b>6.0</b>
<b>Germany</b>	5.2	4.1	3.8	3.4	3.2	<b>4.0</b>	<b>3.5</b>
<b>Italy</b>	11.2	11.7	11.2	10.6	10.0	<b>11.8</b>	<b>10.7</b>
<b>Portugal</b>	14.4	11.2	9.0	7.1	6.5	<b>9.7</b>	<b>7.4</b>
<b>Netherlands</b>	6.5	6.0	4.9	3.8	3.4	<b>5.9</b>	<b>5.3</b>
<b>EU</b>	<b>10.6</b>	<b>9.1</b>	<b>8.1</b>	<b>7.2</b>	<b>6.7</b>	<b>9.0</b>	<b>7.9</b>

Azken batean, kolpe handia izango da hazkunderako eta horren ostean ekonomia ez da erabat suspertuko. Pandemiak larriki eragiten die kontsumitzaileen gastuari, industrien ekoizpenari, inbertsioari, merkataritzari, turismoari, kapital fluxuei eta hornidura kateei, beraz, ez da espero Europako ekonomiak aurtengo galerak 2021a baino lehen berreskuratuko dituenik.



Gaur egun, HAZIk egindako azken balorazioan oinarrituta, EBK-ko jarduerak %10,7ko ekarpena egiten diote euskal BPGd-ri Euskadin, eta 142.000 lagun baino gehiagori ematen diote enplegua (euskal ekonomiaren enpleguaren %15,2).

1 Grafikoa.- Elikaduraren Balio Katearen Balorizazioa Euskadin



Iturria: HAZI

Euskadin, EBKren kate mailek eragin maila desberdinak erregistratuko dituzte koronabirusaren pandemiak eragindako krisialdi honetan. Krisia HORECA kanalaren jarduerak kaltetzen ari da gogorrenen (hotelak, jatetxeak eta tabernak, eta cateringa), izan ere, herrialde guztietako administrazioek hartutako deseskalatze neurriek jarduera horien garapen ekonomikoan eragiten dute zuzenean, eta katearen azken maila horiek izango dira beren jarduera leheneratzen azkenak.

Erantzuten jakitea eta neurri berritzaileak eta irudimentsuak hartzea funtsezkoak izango dira errealitate berri hori gainditzeko, eta neurri horiekin batera beharrezkoa izango da erakunde publikoek eta pribatuek babes neurriak ezartzea, garai honetan lankidetzaz ezinbestekoa eta giltzarria baita egun ditugun arazoei aurre egiteko.


### 3 EUSKADIKO EGUNGO EGOERA

COVID-19a euskal ekonomian eta, bereziki, elikadurari lotutako jardueretan izaten ari den inpaktua analizatzeko, Estatistikako Euskal Erakundeak (Eustat) hilero egoerari buruz argitaratzen duen informaziora jo da.

#### 3.1 Barne Produktu Gordina

Eustatek egindako Hiruhilekoko Kontuen Aurrerapenaren arabera, EAEko Barne Produktu Gordina (BPGd) %30 jaitsi da 2020ko lehen hiruhilekoan, 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Egutegiaren eta urtaroen efektuak atera ondoren, hiruhilekotik hiruhilekora BPGd-ak %4,5 atzera egin duela kalkulatzen da.

1 grafikoa.- EAEko BPGd-aren aldaketa tasak. (%).



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko kontuak. Aurrerapena.  
Urtaroen eta egutegiaren efektuak zuzenduta


Eskaintzaren aldetik, atzerapena orokorra izan da sektore guztietan, neurri handiagoan edo txikiagoan, martxoko azken bi asteetan ekoizpen jarduera guztietan gertatu zen aldaketa edo geldialdiaren ondorioz.

**Enplegua, lanaldi osoko lanpostuen baliokide gisa neurtuta, %3,1 jaitsi da, aurreko urteko hiruhileko berean zegoenarekin alderatuta. Hiruhilekotik hiruhilekora neurtuta, egutegiaren eta urtaroen efektuak zuzendu ondoren, aldaketa -%4,1ekoa izan dela kalkulatzen da.** Enpleguaren jaitsiera larri hau, neurri handian, martxoaren erdialdetik hona egin diren ERTE kopuru handiagatik izan da.

#### 3.2 Elikadura eta Edarien industria

2020ko martxoan, EAEko industri ekoizpenak %14,3 egin du atzera, 2019ko urteko hilabete berberarekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera. Aurreko hilabetearekin alderatuta, hau da, 2020ko otsailaren alderatuta, EAEko industri ekoizpenak %16,3 egin du behera, urtaroen efektuak zuzendu ondoren.

2 Grafikoa.- EAEko industri ekoizpenaren indizearen urtetik urterako aldaketa tasa. (%).



Iturria: Eustat. Industri ekoizpenaren indizea. Egutegiaren efektuak zuzenduta.

2019ko martxoarekin alderatuta, 2020ko martxoan indizeak bilakaera negatiboa izan du industriako sektore handi guztietan, energiakoan izan ezik, horretan %3,7 egin baitu gora.

Tarteko ondasunak, berriz, %18,7 jaitsi dira, eta ekipo ondasunak ere jaitsi dira baina %18,4. Tarteko ondasunen artean nagusi dira metalurgiako jarduerak, produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa edo kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa, eta ekipamendu ondasunen artean, berriz, aipagarriak dira ibilgailu motordunen fabrikazioa, lokomotoreen eta trenetarako materialen eraikuntza edo aeronautikako edo ontzizintzako eraikuntza lanak.


Kontsumo ondasunek, oro har, %0,7ko jaitsiera txikia eduki dute, beren osagaiak oso portaera desberdina eduki dutelako. Izan ere, kontsumo ondasun iraunkorrek<sup>1</sup> %13,4 jaitsiera eduki dute, eta kontsumo ondasun ez iraunkorrek, berriz, %2,1eko igoera.

2020ko otsailetik 2020ko martxora bitarteko hiletik hilerako aldaketak ere bilakaera negatiboa eduki du industriako sektore handi guztietan, energiako sektorean izan ezin, horretan %1,4eko igoera egon baita. Ekipo Ondasunek %24,0ko jaitsiera eduki dute, Tarteko Ondasunek %19,4koa eta **kontsumo ondasunek, orokorrean, %4,8 egin dute behera**, portaera desberdineko bi ondorio negatibo hauen konbinazioagatik: **kontsumo ondasun iraunkorrek %21,2 egin dute atzera eta kontsumo ondasun ez iraunkorrek %0,9ko beherakada eduki dute.**

Kontsumo ondasun ez iraunkorren artean azpimarratzeko modukoa da elikagaien eta edarien industriak eduki duen portaera, hiletik hilerako %10,59 jaitsi baita, kontuan izanda industria orokorrean %16,39 jaitsi dela. Portaera horrek urtetik urtera izan duen aldaketa aztertzen bada, ikusten da elikagaien eta edarien industriak -%3,2ko jaitsiera eduki duela eta industriak, berriz, jaitsiera are handiagoa dela, -%14,3koa, zehazki.

<sup>1</sup> Kontsumo ondasun iraunkorren epigrafean altzarien, etxetresna elektrikoaren edo produktu elektronikoaren fabrikaziorako jarduerak daude. Elikagaien fabrikazioa, prozesamendua eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantzigintza dira, besteak beste, kontsumo ondasun ez iraunkorren sektore handian sartzen direnak.

3 Grafikoa.- Industriako Ekoizpenaren Indizearen bilakaera EAEn, urtaroaren osagaia kenduta.




Iturria: HAZI. 2008-2020 aldia.

Aurreko munduko krisi ekonomikoarekin alderatuta, hau da, 2009ko krisiarekin alderatuta, industriaren ekoizpen indizea 2009ko urteko ekoizpen indizearen pareko balioetara iritsi da martxoan; halere, elikaduraren eta edarien industriaren ekoizpena 2009an lortutako balioaren gainetik kokatu da.

### 3.3 Elikagaien eta Edarien Industriako prezioak

Eustatek landutako datuen arabera, 2020ko martxoan industriako prezioak %1,8 jaitsi ziren EAEn, aurreko hilekoekin alderatuta. Datu horiekin, martxoan urtetik urterako tasa, azken hamabi hilabeteko industria prezioen aldaketa jasotzen duena, -%2,7 izan zen.

4 Grafikoa. - EAEko industriako prezioen indizearen urtetik urterako aldaketa tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industriako prezioen indizea

Azterketa zehatzago batek agerian utzi du aurreko hilabetearekin alderatuta 2020ko martxoan prezioen igoerarik handiena eduki duten sektoreak hauek direla: energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren sektoreak, %0,9 igo baitira, eta horien atzetik produktu farmazeutikoen sektorea eta makinaren eta ekipamenduen fabrikazioa, biek batera %0,8ko igoera eduki baitute.

Osterantzean, hauek dira hiletik hileraz prezioen jaitsierarik txikiena eduki duten sektoreak: koke lantegiak eta petrolio findegiak, %19,5 jaitsierarekin; erauzketa industriak, %2,2ko jaitsierarekin; eta ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza, %1,6ko jaitsierarekin.

Ondasunei ematen zaien erabilera ekonomikoaren arabera egiten den ondasunen klasifikazioari jarraituta, ekipo ondasunek %0,5 egiten dute gora eta kontsumo ondasunak, oro har, %0,2 hazi dira aurreko hilabetearekiko. Kontsumo ondasunen barruan, ondasun ez iraunkorren prezioak %0,3 igo dira, eta **ondasun iraunkorren prezioetan %0,4ko jaitsiera nabaritu da**. Osterantzean, energiaren prezioa %10,0 jaitsi da, eta tarteko ondasunena %0,1.


Urtetik urtera begiratuta, hau da, 2020ko martxoko datuak 2019ko martxokoekin alderatuta, ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza izan dira prezio igoerarik handienak izan dituzten industri adarrak eta %4,4ko igoera eduki dute, eta horien atzean garraio materiala eta erauzketa industriak, %3,8 eta 3,5eko igoerekin, hurrenez hurren. Kontrako zentzuan, prezioen jaitsierarik handienak erregistratu dira koke lantegietan eta petrolio findegietan, horietan prezioak %26,3 jaitsi baitira, eta

horien atzetik zurgintzan, papergintza eta arte grafikoetan, non %3,3 jaitsi diren, eta energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren industriak, non %2,1 jaitsi den.

Ondasunen erabilera ekonomikoaren araberako ondasun talde handien prezioen urtetik urterako aldaketa positiboa izan da ekipo ondasunetarako, %1,5 hazi baita, bai eta kontsumo ondasun guztietarako ere, %2,3 hazi baitira. **Kontsumo ondasunen artean, ondasun ez iraunkorren prezioak %2,5 hazi dira eta ondasun iraunkorrenek %1,1 egin dute gora.** Osterantzean, energiaren sektoreak baino ez du jaitsierarik espermentatzen bere prezioetan, %15,6 jaitsita, tarteko ondasunetan prezioak ez baitira aldatzen (%0,0).

**Elikaduraren eta edarien industriako prezioek +%0,38ko aldaketa izan dute hiletik hilerara, baina industrian oro har, berriz, prezioen indize hori -%1,8 jaitsi da. Portaera hori urtetik urtera aztertzen bada, ikusten da EEIko prezioak %1,15 igo direla eta industriakoak, berriz, -%2,68 jaitsi.**

5 Grafikoa.- Industriako Prezioen Indizearen bilakaera EAEn.



Iturria: HAZI. 2008-2020 aldia.

EEIko prezioek zein Industriakoek 2009an lortutakoak baino balio askoz handiagoak izan dituzte.


### 3.4 Salmenten indizea

EAEko Txikikazko Merkataritzaren Indizea (ICIm) hiruhileko adierazle koiuntural bat da, eta bere helburua da EAEko txikikazko merkataritzaren sektorean eta bere azpisektoreetan salmentek eta langileek duten bilakaera neurtzea.

EAEko txikikazko merkataritzaren sektoreak salmenta gutxiago eduki ditu 2020ko lehen hiruhilekoan, izan ere, aurreko urteko hiruhileko berean izan zituenak baino %3,3 gutxiago izan dira, egutegiaren efektuak kenduta eta prezio konstanteetan, Eustatek emandako datuen arabera. Sektoreko salmentak, zerbitzu urtaroak sartu gabe, %3,2 jaitsi dira prezio konstanteetan, urtetik urtera.

Aurreko hiruhilekoari dagokionez, eta urtaroen efektuak kendu ondoren, salmenten indizeak %3,9 atzera egin du, 2020ko lehen hiruhilekoan.

6 Grafikoa.- EAEko txikikazko merkataritzaren indizearen urtetik urterako aldaketa tasa. (%).



Sektoreka, elikaduraren sektoreko salmentek %4,0 egin dute gora, eta gainerako produktuen txikikazko merkataritzako salmentak, berriz, %9,5 murriztu dira eta automobilgintzarako erregaien salmenta %5,5 jaitsi da, hori dena 2019ko aldi berberarekin alderatuta eta prezioen eta egutegiaren efektua deskontatu ondoren.

**Elikaduraren txikikazko merkataritzaren barruan, elikagaietan, edarrietan eta tabakoan espezializatutako saltokiek (esaterako, fruta dendak, harategiak, arrandegiak) %2,9 salmenta gutxiago eduki dute, eta elikagaietan, edarrietan eta tabakoan espezializatuta egon ez arren gehienbat produktu horiek saltzen dituzten txikikazko saltokiek (supermeraktuak edo hipermerkatuak, funtsean), berriz, %7,2 salmenta gehiago eduki dute.**


EAE osoan, txikikazko merkataritzaren sektorean lan egiten duten pertsonen kopurua %0,7 jaitsi da 2020ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, %0,5 jaitsi da.

### 3.5 Azalera handietako salmentak

Azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritza indizea (IGSC) operazioak Euskal Autonomia Erkidegoko azalera handietako<sup>2</sup> eta elikadura kate handietako saltokien sektorean dauden salmenten eta bertan diharduten langileen bilakaera komertzialari buuruzko adierazle koiuntural bat ematen du. 2015az geroztik zabaldu da informazioa.

EAEko azalera handietan eta elikadura kate handietan, 2020ko martxoan salmentek urtetik urterako %1,7ko igoera eduki dute prezio konstanteetan, lan egutegiaren termino homogeneoetan, Eustatek landutako datuen arabera. 2020ko otsailarekin alderatuta, salmentak % 1,8 jaitsi dira, urtaroen eraginik gabe.

7 Grafikoa.- EAEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urtetik urterako aldaketa tasa. (%).



Iturria: Eustat. Azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea-IGSC. Egutegiaren efektuak zuzenduta. Prezio konstanteak

Hileko bigarren hamabostaldian COVID-19aren pandemia globalari aurre egiteko konfinamenduko eta establezimenduak partzialki edo osorik ixteko ezohiko neurriek emaitza oso desberdina eragin dute elikagaien salmentetan (jarduera kritikoa eta funtsezkoa) eta gainerako artikuluenetan (jarduera oso murriztua).

<sup>2</sup> Azalera handia esaten zaie salmentarako 2.500 m<sup>2</sup> edo azalera handiagoa duten salmenta establezimenduei, eta elikadura kateak esaten zaie, berriz, gutxienez hiru lokal dituzten enpresei, azalera handiren bat balute horiek ere sartuta, eta 100 enplegatu baino gehiago badituzte.



Hala, azalera handietako eta elikadura kate handietako elikagaien salmentek urtetik urterako % 18,5eko igoera adierazten badute ere, gainerako artikuluei dagozkienek % 35,2ko jaitsiera izan dute aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, egutegiaren ondorioak atera ondoren.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, hau da, 2020ko otsailarekin alderatuta, elikagaien salmentak, prezio konstanteetan eta urtaroen eraginik gabe, % 14,8 igo dira, eta gainerako produktuenak, berriz, % 34,8 jaitsi.

2020ko urtarriletik martxora bitarteko metatuan, merkataritza azalera handi eta elikadura kate handietako salmenten indizeak % 1,4ko igoera izan du, elikaduran gertatu den hazkundearen ondorioz (% 7,7), gainerako produktuetan % 11,0ko jaitsiera erregistratu baita.


EAEko azalera handietan eta elikadura kate handietan enplegatutako langileen kopurua % 0,5 jaitsi da aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta % 2,3 aurreko hilabetearekin alderatuta, urtaroen eraginik gabe. 2020ko hiru hilabete horietako metatuan, enplegatuen kopurua % 1,0 hazi da, 2019ko aldi berarekin alderatuta.

### 3.6 Gizarte Segurantzako Afiliatuak EAEn

2020ko apirilean, 948.970 pertsona daude gizarte segurantzako afiliatuta EAEn. Horrek esan nahi du martxoan baino %2 afiliatu gutxiago dagoela, edo, beste era batera esanda, 18.500 afiliatu gutxiago.

Azterketa bera otsaileko datuekin egiten bada –osasun krisiaren aurretik da hori–, hilabete horretan 973.152 pertsona zeuden afiliatuta; halere, COVID-19ak afiliatu kopuru hori apirilean 948.970era jaitea ekarri du, hau da, 24.182 afiliatu gutxiago izatea Gizarte Segurantzakoan.

8 Grafikoa.- Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruaren bilakaera EAEn.




Iturria: HAZI. 2008-2020 aldia

### 3.7 Kontsumoko Prezioen Indizea

Kontsumoko prezioen hiletik hilerako aldaketa tasa +%0,32koa da apirilean. Eransketa honetan sartzen diren produktuetatik, elikaduraren prezioak nabarmentzen dira beren prezioetan eduki duten igoeragatik; hala, elikagaiak eta edari ez alkoholikoak +%1 igo dira martxotik, eta edari alkoholikoak eta tabakoak +%0,13 igo dira.

Konfinamendu egoeran sarri kontsumitu diren eta martxoko kontsumoarekin alderatuta gutxiago kontsumitu diren zerbitzuen artean, berogailuetarako gasolioa eta elektrizitatea nabarmentzen dira.

9 Grafikoa.- Kontsumoko Prezioen Indizearen bilakaera EAEn.



Iturria: HAZI. 2011-2020 aldia

Apirilean, Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) urtetik urterako aldaketa tasa -%0,5 da orokorrean, 2019ko apirilean erregistratutakoa baino hamar hamarren gutxiago.

Hauek dira urteko tasaren jaitsieran duten eragina nabarmentzen diren taldeak:

- Garraioa, -%6,7ko aldaketarekin, hil honetan garraio pertsonalerako erregaien eta lubrifikatzaileen prezioek behera egin dutelako, 2019ko apirilean ez bezala, orduan igo egin ziren eta.
- Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk, -%6,2 ere jaitsita, hil horretan elektrizitateren eta berogailuetarako gasolioaren prezioek jaitsi zirelako, aurreko urtean ez bezala, orduan igo egin ziren eta.

Eragin positiborik handieneko taldeak, berriz, hauek dira:

- Elikagaiak eta edari ez alkoholikoak, urtetik urtera beren aldaketa tasa +%4,0 izan baita.

### 3.8 Egoeraren laburpena

Ondorio moduan, hona hemen egoerari buruzko ideia azpimarragarrienen zerrenda bat:

- A. EAEko BPGd-ak %3 egin du atzera urtetik urtera 2020ko lehen hiruhilekoan, eta enpleguak %3,1. 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, BPGd-a %4,5 jaitsi da.
- B. Elikagaien eta edarien industria -%3,2 uzkurdu da, eta industriarena ere, oro har, -%14,3 uzkurdu da martxoan.
- C. Elikagaien eta edarien industriako prezioak %0,4 igo dira, eta industria orokorrekoak, berriz, -%1,8 jaitsi ziren. 2019ko martxoarekin alderatuta, industriako prezioak %2,7 jaitsi dira.
- D. 2020ko lehen hiruhilekoan salmenten indizeak erakusten du elikagaien salmentek %4,0ko igoera eduki dutela eta gainerako produktuen salmentek %9,5eko jaitsiera. Elikagaien salmentak %4,0 igo dira eta gainerako produktuenak, berriz, %9,5 jaitsi dira.
- E. EAEn, azalera handi eta elikadura kate handietako salmentak %1,7 igo dira 2020ko martxoan. Elikagaien salmentak %18,5 igo dira, eta gainerako produktuenak, berriz, %35,2 jaitsi dira.
- F. Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua -%2 jaitsi da EAEn, 2020ko apirilean, aurreko hilabetekoarekin alderatuta.
- G. Kontsumoko Prezioen Indizearen urteko aldaketa tasa -%0,5ekoa da apirilean, Euskadin, eta elikagaien eta edarien taldea da igoerarik handiena eduki duena, %0,4 inguruko igoera izan baitu.

## 4 BARRUKO DIAGNOSTIKOA

Zentzu honetan, Jarraipen Batzordeak, HAZIko eta Euskadiko Elikadura Clusterreko ordezkariak osatuta baitago, erabaki zuen **inkesta** bat egitea, informazio lehen eskutik eskuratzeko eta osasun krisiak EBKren kate maila guztietako enpresetan eduki duen inpaktuaren diagnostikoa egin ahal izateko.

### 4.1 Inkestaren parametroak

EBKren agenteak identifikatzea izan zen inkesta hori egiteko lehen urratsa. EBKa osatzen duten 42.000tik gora establezimenduei inkesta egitea ezinezkoa denez, erabaki zen agenterik adierazgarrienak aukeratzea. EBKa osatzen duten sektore guztietan ordezkariak duten 300 agente identifikatu ziren gutxi gorabehera, eta horien %42k erantzutea lortu da, hau da, 126 erantzun jaso dira.

Erabakigarritzat jo zen, halaber, establezimenduen tamaina, eta saiatu zen enpresa txikie eta enpresa ertainen laginak hartzen, bai eta 250 langile baino gehiagoko establezimenduenak ere.

1 Taula.- Inkestaren erantzunen banaketa enpresen tamainen arabera

Enpresaren tamaina	%
MIKRO enpresak (1-9 enplegu)	%34,13
TXIKIAK (10-49 enplegu)	%44,44
ERTAINAK (50-249 enplegu)	%13,49
HANDIAK (250 enplegu baino gehiago)	%7,94

10 Grafikoa.- Elikaduraren Balio Katearen egitura




Iturria: HAZI

Inkesta 6 eremutan egituratu da:

- Administrazioa eta pertsonen kudeaketa
- Ekoizpena eta erosketak
- Logistika
- Finantzak
- Komertziala eta marketina
- Kalitatea eta I+G+b

Eta EBKaren egitura ekonomikoa ere kontuan hartuta, euskal BPGd-aren %10,7ko ekarpenaren bidez 125.000 lagun baino gehiagori enplegua ematen baitie (euskal ekonomiaren enpleguaren %15,2).

11 Grafikoa.- Elikaduraren Balio Katearen balorizazioa Euskadin



Iturria: HAZI

Ondoren, Elikaduraren Balio Katerako aztertu diren eremuetako bakoitzeko atera diren ondorioak nagusienak datoz zehaztuta.

## 4.2 Inkestaren emaitzak

Koronabirusaren pandemiak eragindako egungo krisiak EBKaren kate maila guztietan izan dituen ondorioak maila desberdinekoak izan dira Euskadin. HORECA kanala da ondoriorik gogorrenak eduki dituen kate maila, hau da, hotelek, jatetxeek eta tabernek eta cateringak pairatu dituzte gogorren krisiaren ondorioak; beraz, datozen asteetan euskal administrazioak kate maila horretarako hartuko dituen deseskalatze neurriak erabakigarriak izango dira bere suspertze ekonomikorako, kate maila horretakoak izango baitira beren jarduerari bueltatzen azkenak. Atal honetan ditugu identifikatuta EBK osorako eta azterketa eremu bakoitzeko atera diren ondoriorik garrantzitsuenak: Administrazioa eta pertsonen kudeaketa; ekoizpena eta erosketak; logistika; finantzak; komertziala eta marketina; eta kalitatea eta I+G+b.

### 4.2.1 Administrazioa eta pertsonen kudeaketa

- la enpresa guztiek dituzte eskaerari erantzuteko behar besteko giza baliabideak.
- Establezimenduen erdiek ez dute plan sozialeta jo beharrik izan. Neurriren bat abian jartzera behartuta egon diren enpresen artean: %15ek ERTE osoa aukeratu behar izan dute; %22k ERTE partziala; eta gainerako %17ak ezohiko neurriak.
- Hauek dira ERTEek gehien eragindako arloak: Ekoizpena, komertziala eta administrazioa.
- Hauek dira gehien hartu diren neurri sozialetako batzuk: Oporrak aurreratzea, telelana eta antolaketa aldaketak (ordutegian malgutasuna, errotazioa handiagoa, lanaldi murrizketak eta ordu poltsa bat sortzea).
- Telelana ezarriz lana malgutzeko neurriak hartu ahal izan dituztenen erakundeen artean: Enpresen %54k adierazi du neurriak %20 baino gutxiago portzentajea ezarri duela; erakundeen %25ek, berriz, esan dute telelana %20-40 arteko portzentajea ezarri dutela, %12k %40-60 artean eta %10ek %60 baino portzentaje handiagoan.

### 4.2.2 Ekoizpena eta erosketak

- Osasun krisialdian funtzionatzen jarraitzen duten negozioetatik %20 beren jardueraren %20 baino gutxiagorekin ari dira; %18 beren jardueraren %20-40arekin; %8 beren jardueraren %40-60arekin; elikadura enpresen %16 beren jardueraren %60-80ean ari dira; beste %16 beren jardueraren %80-100ean, eta gainerako %22a %100ean ari dira.
- Elikadurako euskal enpresak bizitzen ari diren egoera zaila den arren, horiek %48k adierazten dut ekoizpena planifikatuta dutela eta eskaerarako egokia dela. Horietatik %16k ere ekoizpena egokitu ahal izango dute, gorabeheraren batekin edo besterekin izan bada ere, eta %36k adierazten du ziurgabetasun handia daukala ekoizpena planifikatzeko, ez baitakite zer bilakaera izango duen krisiak eta ikusi beharko dela HORECA kanala noiz eta zer baldintzatan irekiko den.
- Lehengaien hornigaien eta mantentze eta konpontze lanen zerbitzuei dagokienez, %80 baino gehiagok hornidura/zerbitzua bermatuta dute eta %20 baino zertxobait gutxiago esaten du arazoak dituela, batez ere enbalajeen eta ontzien horniduran. Aurreko emaitza gorabehera, orokorrean NBE-ez hornitzeko zailtasunak dituztela eta NBE horiek garestitu direla diote.
- %24k ez du aldaketarik espero lehengaien kostuan, %8k adierazten du jaistera joko dutela, eta %35ek lehengaiak garestitzea espero du. %32k ez daki zer gertatuko den prezioekin.

#### 4.2.3 Logistika

- Soberakinen kudeaketa eta biltegitratzea ez da arazoa izaten ari elikadurako euskal enpresen %54rentzat. Halere, biltegitratzeko arazoak badituzten adierazten duten establezimenduen %46k hainbat neurri hartu behar izan dituzte: biltegitratzeko lekua kanpoan kontratatzea, salmentarako beste kanal batzuk bultzatzea (online, etxex etxeko salmenta, promozioak, etab.), besteak beste.
- Inkesten %85ek ez dute arazorik adierazten merkantziak ekartzeko/eramateko garraiobideak aurkitzeko. Horretarako arazoak dituztela adierazten duten enpresen artean (%15), gehienek garraiobide propioak erabiltzea erabaki behar izan dute zerbitzuari erantzuna emateko.
- Hasteko, inkestatuen %66k uste dute ez dela arazorik egongo merkantziak garraiatzeko, behintzat Europan. Gainerakoek ustez, egoerak luze jotzen badu arazoa izan liteke, batez ere lehengaiak hornitzeko edo produktuak atzerrian saltzeko nazioarteko merkatura jotzen duten enprezentzat.

#### 4.2.4 Finantzak

- Inkestatutako elikadurako euskal enpresen %76k galerak espero ditu 2020ko ekitaldian; %19k ez du aldaketarik espero, eta soilik %5ek adierazten du 2020an irabaziaz izango dituela. Batez beste %40 eta %60 arteko murrizketa espero da emaitzen kontuan.
- Galerak espero dituztenen artean, inkestatuen %32k adierazten du %20ko galerak espero dituela urte amaierako emaitzen kontuan; %57k %40 eta %60 arteko galerak espero du; eta %11k %60 baino gehiagoko inpaktu negatiboa espero du. Aurreikuspen hauek HORECA kanalaren irekieraren mende daude kasu askotan.
- Euskal enpresak bizitzen ari diren egoera zailaren aurrean, %60k martxan jarri du jada gastuaren kontingentzia plan bat. Orokorrean, kostuak gutxituko dira eremu guztietan, baina hauek dira gehien kaltetuko diren arloak, kalteen garrantziaren arabera ordenatuta: Ekoizpenean lehengaien erosketa murriztuko da, eskulana gutxituko da (kaleratzeak, ez da ABLEetara joko, etab), eremu komertzialeko eta marketineko gastua ahalik eta gehien murriztuko da, eta inbertsioak egin ere ez dira egingo.
- Enpresen kaudimenari dagokionez, %63k esaten du ez duela likidezia arazorik izango epe motzera; %29k, berriz, adierazten du likidezia arazo kezkarriak dituela, baina ez arazo kritikoak; eta gainerako %10ak arazo oso larriak edukiko ditu kaudimenean. Egoera hori larriagotu daiteke ez ordaintzeak egoteko arriskuagatik eta krisiari aurre egiteko enpresak zorpetzera jotzen ari direlako.

#### 4.2.5 Komertziala eta marketina

- Enpresen %80k bat-bateko jaitziera ikusi du beren salmentetan; %15ek ez du aldaketarik eduki beren salmenta bolumenean; eta %5i positiboki eragin die, beren negozio zifra handitu baita.
- 2020ko ekitaldirako fakturazioan zenbateko murrizketa edukiko duten aurreikusteak zaila bada ere EBK osorako, %40 eta %50 areko murrizketa espero da batez beste.
- Enpresen %34k espero du beren fakturazioa %20 baino gutxiago uzurtzea; inkestatuen %34k espero du beren fakturazioa %20 eta 540 artean murriztea; %20k %40 baino gehiagoko murrizketa espero du bere fakturazioan;

eta inkestaturen %12k uste du beren fakturazioaren murrizketa %60 baino gehiagokoa izango dela.

- Garrantziaren arabera ordenatuta, honela sailkatzen dira kanalak: Lehen lekuan Kontsumo Handia eta HORECA kanala dauden, esportazioarekiko diferentzia handi batekin, esportazioa bigarren lekuan baitago, eta neurri txikiagoan beste kanal mota batzuk erabiltzen dira, hala nola online kanala eta beste industria batzuei saltzea.
- Kanal guztietan gertatzen ari dira aldaketak, baina HORECA kanalaren desagertzea eta esportazioen jaitsiera latza dira aipagarrienak. Hauek dira hazten ari diren kanalak, HORECA kanalaren salmentak bere gain hartu ezin badute ere: Banaketa Handia eta neurri txikiagoan online kanala eta etxez etxeko salmentak, baina oso pisu txikiko kanalak dira, guztizko pisuarekiko.

#### 4.2.6 Kalitatea eta I+G+b

- Jasotako erantzunen %41etan, enpresek esaten dute ez dituztela beraien kalitate prozesuak aldatu; %25ek pixka bat aldatu du eta gainerako %34ek adierazten dute ezarritako gomendioetatik gora aldatu dituztela.
- Orokorrean, enpresek bai esaten dute egokitu dituztela beraien laneko segurtasun eta osasuneko protokoloak administrazioek COVID-19aren kontra emandako gomendioetara (NBE-en erabilera, pertsonen arteko segurtasuna, neurri higieniko-sanitarioak, lanpostuen egokitzapena, etab.).
- Inkestaturen %16k adierazten dute lantzen ari ziren I+G+b-ko proiektu guztiak gelditu behar izan dituztela eta %34k bat-batean murriztu dituzte beraien berrikuntza jarduerak. %24k I+G+b-ko proiektuak lantzen jarraitzen dutela esaten badute ere, COVID-19aren aurretik baino neurri txikiagoan lantzen dituzte proiektu horiek, eta gainerako %24k normaltasunez jarraitzen dute lanean, beraien ikerketa proiektuak ez baitira aldatu.
- Enpresen %30ek aukera berriak identifikatu dituzte osasun krisian. Hauek dira arlorik aipatuenak: Kanal berrien bilaketa (online, RRSS, etxez etxeko salmenta), produktu berrien garapena, lehiakideekin elkarlan gehiago...)



## 5 OSTALARITZA, GEHIEN ERAGINDAKO SEKTOREA

---

Kapitulu honetan ostalaritzako sektorean jarri da fokua, hotelek, jatetxeek eta tabernek eta cateringak osatutako sektorean, alegia, krisian ia jarduera osoa etetera behartuta ikusi den eta diru sarrerak sortzeari utzi behar izan dion kate maila delako; beraz, COVID-19ak gehien kaltetu duen Elikaduraren Balio Kateko sektorea.

EAEko ostalaritzako sektorea da euskal ekonomiaren funtsezko oinarrietako bat, honengatik:

- Ekonomian pisu handia dauka, 2017an Euskadiko BPGd-aren %,14 izan baita.
- Urtean 60.812 pertsonari ematen dio enplegua zuzenean.
- 13.826 establezimenduk osatzen dute.
- 2017an 4.100 milioi euro baino gehiago fakturatu zituen.
- Eta turismoari laguntzeko funtsezko ardatza da, turismoa euskal ekonomiaren beste eragile bat baita.

Ostalaritzako sektoreak elikadurarekin lotura estua du, eta hau da Euskadin:

- Euskadiko BPGd-aren %4,45 2017an.
- Urtean 53.410 pertsonari ematen dio enplegua.
- 12.836 establezimenduk osatzen dute.
- 3.550 milioi euro inguru fakturatu zituen 2017an.

Garrantzitsua bada ere, sektorea bereziki hauskorra eta zaugarria da ziklo eta talka ekonomikoen aurrean, hala nola COVID-19aren egungo krisiaren aurrean:

- Oso zatikatuta dago, eta mikropymeak izatea da negozioen bereizgarria.
- Irabazien marjina oso baxuekin jarduten du.
- Likidezia gutxi dauka.

Ostalaritzako sektoreak <sup>3</sup> dauzkan datuen arabera, krisialditik atera ondoren baliteke %15 inguruko beherakada egotea establezimenduen bolumenean eta baliteke, baita ere, sektoreak bere fakturazioaren %40 ere galtzea urte honetan.

**Estatuko ostalaritzako sektoreak egindako aurreikuspenak Euskadiko datuetara estrapolatuta, gerta daiteke euskal ostalaritzako 2.000 establezimendu baino gehiago ixtea, gutxi gorabehera 10.000 enplegu galtuta eta 1.600 milioi euro baino gehiago fakturatu gabe geratuta.**

Horregatik, sektore honetarako erabakigarriak izango dira sektorearen suspertze ekonomikorako euskal administrazioak datozen asteetan ezarriko dituen deseskalatze neurriak.

---

<sup>1</sup> Gipuzkoako Ostalaritzako Enpresarien Elkartek (Gipuzkoako Ostalaritza) egindako estimazioa, Bain & Companyk Espainiako ostalaritzarako egindako txostenaren arabera. Erakunde horrek herrialde osoko 270.000 jatetxe, taberna, kafetegi eta pub baino gehiago ordezkatzan ditu, AECOC, 30.000 fabrikatzaile eta banatzaile baino gehiago biltzen dituen enpresa-elkartea, eta FIAB, Elikadura eta Edarien Industrien Espainiako Federazioa.

## 6 KONTSUMO JOERAK ETA KONTSUMOKO INPAKTUA

COVID-19aren pandemiak eragindako krisiak etxeetako kontsumoan eduki duen ondorioa **hiru ikuspegi hauetatik** analizatu da:

1. **Erosketa saskiaren bilakaera:** batez ere kontsumitzaileen erosketa saskiaren osaerak eduki duen bilakaera eta konfinamenduak etxeetako erosketa ohituretan eduki dituen ondorioak aztertzen ditu.
2. **Banaketa kanal nagusiak:** Alarma egoera honen aurrean kontsumitzaileek lehenesten duten banaketa kanalaren tipologia aztertzen da. Betiko dendek eta hirietako erdiguneetan dauden supermerkatuek duten eginkizuna aztertzen da.
3. **Kontsumitzaileen profila:** COVID-19ak gure gizartean eragin duen shockaren ondoren biztanle kontsumitzaileek erosketa egitean duten portaeraren ezaugarri nagusiak aztertzen dira

Alarma Egoera deklaratu aurreko astean dei efektu bat gertatu zen, non kontsumitzaileek supermerkatuak mendean hartu eta "gerra/biziraupen pilaketa" itzela egiteko. Martxoaren 9ko aste horretan, herritarren erreakzioa izan zen halako beldur bat edukitzea eta "bunker efektua" deiturikoa gertatu zen, birusaren hedapenak eta konfinamendua iragarriko zela aurreikusteak (Italian martxoaren 10ean sartu ziren konfinamenduan) eragindako segurtasunik eza eta ziurgabetasunagatik.

Azaletik, hauek izan dira kontsumitzaileen portaeran zuzenen eduki dituen ondorioak:

- Erosketak egiteko maiztasuna txikiagoa izatea, eta erosketen tiketak maximo historikoetara iristea.
- Hurbileko kanalek eta online kanalek gora egitea.
- Behar-beharrezko produktuen saskiak batez ere indulgentziatzko edo gutuziazko produktuen saski bihurtu ziren.

### 6.1 Erosketa saskiaren bilakaera


Kontsumo ohiturak aldatuz joan dira astetik aстера, eta hainbat fasetatik igaro dira. **Lehen aldi batean**, erosketa saskia **denbora luzez gorde daitezkeen oinarritzko produktuak erostera** mugatzen da (arroza, pasta, lekaleak, kontserbak, olioak, irina, esnera), eta aldi berean garrantzi berezia hartzen du **higiene produktuen** erosketak (komuneko papera, garbiketa produktuak eta desinfektatzaileak). Era berean, **etxetik kanpo kontsumitzetik etxe barrura kontsumitzera igaro zen** argi eta garbi eta horrek ekarri zuen plazer uneekin lotura duten produktuen erosketak nabarmen gora egitea, hornidurarako/pilaketarako erosketak osatzeko. **Indulgentziatzko produktuen** (kakao krema, txokolata, azukrea, gozoak, gailetak), edarien (batez ere garagardoa eta destilatuak) eta zizka-mizken kontsumoak gora egiten du nabarmenki.

Aipatutako kategoriak ez bezala, lehen fase honetan produktu galkorren kategorია ez da proportzio berean hazten.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak bildutako informazioa oinarri hartuta, konfinamendu aldiaren aurretik eta konfinamendu aldian ere **etxeetako gastua, kontsumo handian, hazi egin da bi digitu izateraino, 2019koarekin alderatuta.**

Elikadurako erosketen bolumenaren datuek erakusten dutenez, alarma egoera deklaratu aurretik (martxoaren 9tik 15era - urteko 11. Astea) pilaketa erosketak egin ziren, eta horren ondorengo astean horrelako erosketak ezin ziren hain beharrezkoak izan, homidura bermatuta zegoelako. 11.astearen amaieran, konfinamenduaren egun batzuk lehenago, bunker efektua gertatu zen, eta horrek egin zuen kontsumitzaileek beren erosketak bolumena handitzea. Aurreko urteko aste berean egindako erosketekin alderatuta, %29,8 erosketak gehiago egin zuten, eta ondorengo astean, berriz, halako erlaxazio bat gertatu zen erosketetan (+%10,9). Gero, ia hilabete bat geroago, beste gorakada bat gertatu zen Aste Santuko jaiengatik.

12 Grafikoa.- Estatuko etxeetako erosketen bilakaera konfinamendu aldian.



Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa

Aztertutako denbora tarte osoan, etxeetako erosketen igoera konstantea izan da, eta hori gertatu da kontsumo une guztiak etxe barrura igaro direlako. Seguruenik, konfinamendu fasea bukatuz joan ahala eta kaleko bizitza berriro bueltatu ahala, etxeetako erosketen bilakaera errealitate berrira egokituko da, kontsumo uneak etxe barruan eta etxetik kanpo izango dira-eta. Edozein modutan ere, interesgarria da arreta jartzea bat-batean etorri zaigun egoera honetan eskuratu duten ohitura berrietan eta aztertzea ea eskuratutako ohitura berri horietatik zeinek jarraituko duen denboran konfinamendu garaitik haratago, ohitura horiek markatuko baitute etxeetako erosketen garapena.







Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak emandako datuen arabera, astetik atera aldatu da erosketak saskiaren osaera. Konfinamenduaren aurreko astea (0. Astea) **kategoriari oinarritzeko hornidura handia** gertatu zen **-arroz, pasta, lekaleak, irina, arrain kontserbak eta barazkiak-**, horien erosketak bolumenak bat-batean gora egin baitzuen osasun larrialdialdiak eragindako **“bunker efektuagatik”**. Osasun larrialdiari lotutako ziurgabetasun sentrazioak egin zuen familiak supermerkatu modu inpulsiboan joatea hornidura handia egitera.

Hurrengo asteetan, erosketen erritmoan halako erlaxazio bat ikusten da, produktuen hornidura bermatuta zegoela ikustean, eta **plazer unei lotutako produktuak edo “kapritxoak”** nabarmentzen hasten dira. Zentzu horretan, gora egiten dute **indulgentziazko produktuen erosketak** (irina, arrautzak, olioia etxeko gozogintzarako eta txokolatea/kakaoak eta gailetak ere bai) **eta zizka-mizkenak/fruitu lehorrenak eta edariak, hala nola garagardoak, destilatuak, ardoa eta antzekoak.**

**Hauek dira konfinamendu aldiaren estatuan bizkorren hazten erreakzionatu duten produktuen kategoriak:**

1. **Oinarrizko produktuak:** Arroza, pasta, lekaleak, olioak.
2. Oinarrizko beste produktu batzuk gordetzeko: Arrain **kontserbak** eta fruta eta barazki eraldatuak.
3. **Irinak eta semolak.**
4. **Indulgentziazko produktuak:** Txokolatea, kakaoa, azukrea, gailetak.
5. **Edariak:** Garagardoak, edari destilatuak, ardoak.
6. **Aperitiboa eta zizk—mizkak:** Zizka-mizkak/fruitu lehorrak, ozpinkiak, olibak.

2 Taula.- Kontsumoaren asteroko bilakaera produktu kategoriaren arabera

	Semana 11 9-15 mar	Semana 12 16-22 mar	Semana 13 23-29 mar	Semana 14 30-5 abr	Semana 15 6-12 abr	Semana 16 13-19 abr	Semana 17 20-26 abr
	120-160%	40-70%	10-40%	10-30%	20-30%	30-80%	10-30%
	60-80%	5-25%	0-25%	0-30%	20-45%	15-70%	5-25%
	150%	200%	170%	110%	160%	140%	140%
	20% (+80% azúcar)	20-35%	30-60%	35-65%	50-75%	60-75%	35-55%
	20-25% (+5% vino)	35-60% (+15% vino)	40% (+5% vino)	60-80%	75-95%	50-75%	50-60% (115% destilados)
	15-25%	5-15%	20-60%	35-80%	60-70%	85-110%	35-60%

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa


“Lekaleak, pastak eta arroza” taldearen barruan, lekaleen erosketek izandako gorakada nabarmentzen da, adierazitako hazkunde zerrendaren goiko aldean dagoen produktua baita. Biltegiatze prozesuan, berriz, barazki kontserbek arrain kontserbek baino gorakada handiagoa eduki dute.

**Edarien kategorian**, ordea, **garagardoak eta edari destilatuak** izan dira konfinamenduko lehen astean gorakada handiena eduki dutenak. **Ardoa**, berriz, **beranduago iritsi da hazkunde maila horietara**. Zizka-mizken eta aperitiboaren kategorian, zizka-mizkek oro har (poltsako patatak, fruitu lehorrak eta antzekoak) olibek eta beste ozpinkin batzuek baino bultzada handiagoa eduki dute, horiek ere izanik jatorduen arteko aperitiborik ohikoenetako bat.

Irinen eta semolen kategorian izan da dudarik gabe hazkunderik handiena eduki duena. Etxean ogia edo pizza masa edo gozoak (bizkotxoak, madalenak eta antzekoak) egitea erabakitzen duten familien artean asko erosi den produktua izan da.

**Produktu freskoen** erosketan, eragina ez da oinarrizko produktuen beste kategorian batzuen edo plazer uneei lotutako produktuen erosketetan izandakoa bera. Dena dela, horien kontsumo maila 2019an aste berdinetakoa baino handiagoa izan da.

13 Grafikoa.- Etxeetan egindako produktu freskoen erosketen bilakaera Estatuan



Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa

- ✓ Hasieran, **esne eta esnekien eta arrautzen** erosketetan eragina handiago da, etxeetan oinarriko produktuak pilatzen hasten direlako, biltegiratzeko. Gero, erosketak horiek egonkortu egiten dira.
- ✓ **Arrautzen** erosketek batez ere etxeko gozoak egiteko produktuak eskatzen diren unearekin batera egiten dute gora, eta Aste Santuko jaien aurreko egunetan are gehiago (Aste Santuari lotutako postre tipikoak, etxeko bizkotxoak, etab.).
- ✓ Batez ere nabarmentzekoa da **barazkien eta fruta freskoen** kontsumoan apurka-apurka gertatzen den igoera. **Osasuna zaindu eta elikadura ohitura osasuntsuagoak eduki beharrekin sentsibizazio handiagoa edukitzearekin** lotura du portaera horrek. 2019ko denbora tarte berearekin alderatuta hazkunderik handiena eduki duen kategoria da (urteko 16. astean, apirilaren 13tik 19ra bitartean, Pazko astea eta konfinamenduaren 5. astean, barazkien eta patata freskoen kasuan, %75 igo zen; fruta freskoen kasuan, %66).
- ✓ Beste aldean, arrain kontsumoa dago, produktu freskoen artean igoera txikiena izan duen kategoria baita. Hala eta guztiz ere, 15. Asteetik aurrera (apirilaren 6tik 12ra) bere kontsumoa 2019ko baino %20-35 handiagoa da.


Hitz batean, aste horietan produktu freskoen erosketak gora egiten du oro har, 2019ko denbora tarte bereko erosketekin alderatuta, kontsumo une guztiak etxe barrura gertatzearen ondorioz, eta **gehien hazten diren kategoriak arrautzak, barazkiak eta fruta freskoak dira.**

## 6.2 Banaketa kanalen portaera

Osasun larrialdiak kontsumitzaileen erosketak aldatzea ekarri du. COVID-19aren shockaren aurretik, familiak astean hainbat alditan joaten ziren saltokietara eta hainbat saltokitara jotzen zuten promoziorik eta deskonturik hoberenen bila. Halere, Alarma Egoeran, **erosketen maiztasunak behera** egiten du eta astean behin egiten dira erosketak, eta **hurbileko kanalek** gora egiten dutela nabaritzen da, hau da, **hiriguneetan dauden supermerkatuek eta auzoko denda espezializatuek** garrantzi berezia hartzen dute.

Era berean, **online kanalak** gorakada handia izaten du, kutsatzeko arriskua minimizatzeko saltokira bertara joatea saihestu nahi izan dutenentzat benetako alternatiba izan baita.

14 Grafikoa.- Estatuko salmenten bilakaera banaketa kanal motaren arabera.



Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa

- ✓ **Hurbileko kanaletan eta denda tradizionaletan dago bezeroen fidelizazio mailarik handiena** konfinamendu prozesu honetan. Aurreko urtekoak baino gorakada askoz handiagoak erregistratzen dituzte, **2019an erregistratutakoak baino %50-60 tasa handiagoetan** kokatzen baitira. Hipermerkatuen tasak hiriko supermerkatuenak/autozerbitzuenak baino 20 puntu txikiagoak dira eta denda tradizionalenak baino 30 puntu txikiagoak. Herritarreek etxetik hurbil erostea eta autoan mugitzea saihestea erabaki dute argi eta garbi.
- ✓ **Online erosketak** ugartu dira. Azken aste hauetan online erosketak modalitatea zabaldu da, arriskuko populazioaren eta populaziorik zaugarrienaren zati batentzat erakargarria izan baita. Populazioaren beste talde batzuentzat ere izan da erakargarria, familia kontziliazioari lotutako arrazoiengatik edo jendearekin kontaktuan egotea ekidite hutsagatik. Kanal honek %80 baino hazkunde tasa handiagoak eduki ditu, eta 16. Astea, apirilaren 13tik 19ra, Aste Santua izan den une berean, %230 ere hazi da.

Horrez gain, **deliveryak protagonismo handiagoa hartu du** azken aste horietan. Konfinamenduaren hasieratik jana etxera ekartzeko eskariek gorakada eduki dute, %27 ere hazi dira, lehen egunetan segurtasun juridikorik ezagatik hondoa jo eta gero. Modalitate hori duten jatetxeak gero eta ugariagoak dira. Horien merkatu kuota, estatu mailan, Europako batez bestekoa baino askoz txikiagoa da, eta badirudi modalitate hori gelditzeko etorri dela, merkatu nitxo hori oraindik oso gutxi esploratuta baitago.

### 6.3 Kontsumitzaileen profila

Koronabirusaren hedapenak eta Alarma Egoeraren dekretuak berehalako eragina eduki du kontsumitzaileen portaeran. Lehenengo erreakzioak hasieran pertzibitutako hornigai faltak baldintzatu egon dira eta gero hurrengo asteetan gertaerek izango zuten bilakaeraz zegoen ziurgabetasunak baldintzatu ditu erreakzioak, eta elementu horiek denak lagundu dute:

- **Etxeetako erosketen bolumenak %21 handitzen** (zero asteko %30etik konfinamenduko 1. asteko %11ra)
- Erosketa **tiket bakoitzeko batez besteko gastatutakoak** nabarmen **gora egiten**, tiket bakoitzaren balioa 80 €-tik 111 €-ra igarota. Herritarrek saski handiagoak erosten eta saltokira joateari uzten erantzuten. Horrela, erosketak egiteko maiztasunak behera egiten du eta erosketa tiketen balioak maximo historikoetara iristen dira.
- Familiak **hurbilekoei erosten diete**. Batez ere etxetik hurbil dituzten supermerkatuetara eta denda espezializatueta joaten dira.
- **Online erosten** dituzten kontsumitzaileen portzentajeak gora egiten du.

Osasun larrialdiko egoera berrira azkarren erreakzionatu duen populazio zerrenda 35 urtetik beherakoa izan da, erosketan batez beste gastatutakoa gehien handitu duen populazio zerrenda izan baita.

Konfinamendu aldirian, famili unitateek ohitura berriak barneratu dituzte:

- ✓ **Higiene ohitura** oso zorrotzak: Higiene produktuen erosketak eta garbiketa lanean erabilitako denbora esponentzialki handitu dira.
- ✓ **Osasunaz arduratuagoak eta elikadura ohitura osasuntsuagoak.**
- ✓ Sukaldean denbora gehiago: etxeetan jana egiten batez beste emandako denbora gehiago izan da.
- ✓ Famili bazkariak gehiago izan dira eta mahai inguruan familiako kide gehiago bildu direnez, menuaren tipologia aldatu da: **Plater landuagoak** eta sukaldean denbora gehiago ematea eskatzen dutenak prestatu dira, sukaldaritza kontzienteagoa, jana beste batzuekin batera prestatzea. Horrek ekarri du arroz, lekale eta pasta gehiago kontsumitzea (despentsako kategoria gehiago).
- ✓ Plazerari lotutako kontsumo handiago. **Otordu artean mokaduak edo zizkamizkak jatea sarriago egiten da** (goiz erdian, arratsalde erdian edo afaldu ondoren), eta normalean fruitu lehorren eta poltsako pataten eta antzekoen kontsumoari lotuta egoten da, bai eta indulgentziatzko produktuen kontsumoari ere, hala nola txokolatea, kakao krema, gozoak, bizkotxoak eta gailetak jateari lotuta. Kontsumo horiekin batera edariak kontsumitzen dira, hala nola garagardoak, destilatatuak, ardoa eta antzekoak.
- ✓ Etxeko gozogintzaren booma (etxean egindako bizkotxoak, irin, azukre, legamia, arrautza eta beste produktu batzuk gehiago kontsumitzea dakartenak).

Interesgarria da azpimarratzea nola **edarien kategoriaren** barruan ere kontsumo ereduak aldatu egiten direla, etxetik kanpo kontsumizetik etxe barrura kontsumitzera. Zentzu horretan, **edari hotzen kontsumoak gora egiten du** (garagardoa, beste edari azukredun batzuk, ardoa eta gainerakoak) etxe barruan. **Tradizionalki, etxe barruan edari beroen kontsumoa izan da nagusi** (kafea, tea, infusioak, etab.).

Ikusi beharko da zer eredu nagusituko diren aurrerantzean, ea azkenean etxetik kanpo kontsumitu ohi direnak etxe barruan kontsumitzera igarotzen diren edo, osterantzean, edari beroen kontsumoak nagusi izaten jarraitzen duen etxe barruan.

Kontsumo uneari dagokionez, bigarren gosariekin lotura duten produktuen jaitziera nabaritu da (tortilla pintxoa/kafea edo kafea/opila). Osterantzean, postre uneko produktuen kontsumoa handitu da, hala nola jogurten kontsumoa. Gauza bera gertatu da afaldu ondoren kontsumo uneekin, horiek izan baitira gehien igo direnak, indulgentziarik handieko unekak izanda, non produktu batzuen kontsumoak gora egiten baitu, hala nola txokolatteen, irabiatuen edo kakao esnearen kontsumoa.

Interesgarria litzateke aztertzea ea baneraturako ohitura berri horietatik zeinek iraungo duen denbora gehien konfinamendu aldia igaro eta gero eta zenbateraino intentsitatearekin iraungo duten.

#### 6.4 Konfinamendu ondorengo kontsumo aurreikuspenak

Orain arte analisiaren muina zen gizartea ezohiko ingurune batera egokitzeko azkartasuna ta kontsumitzaileek baneraturako kontsumo eredu berriak, baina orain ikusi behar da kontsumo ohitura berri horietatik zeintzuek iraungo duten denboran konfinamendu aldia igaro ondoren eta zer ohitura berriekin bueltatuko garen "normaltasun berrira", eta horietan jarri beharko dugu arreta.

Datozen hiletan **kontsumitzaileek izango duten portaera faktore** hauei lotuta egongo da, besteak beste:

- Kontsumitzaileen **konfiantza giroa**. (kontsumitzailearen konfiantza indizea).
- **Lan merkatuaren bilakaera** (Gizarte Segurantzako afiliatuak).
- **Prezioen bilakaera** (KPI)
- Etxetik kanpo zein etxe barruan eskuratutako kontsumo ohitura berriak.
- HORECA kanalaren benetako irekieraren egutegia.
- Egon daitezkeen agerraldi berriak.
- Telelana nagusitzen den ala ez.

Aztertzen ari diren dezeleratze ekonomikoko aurreikuspenak ikusita, fabrikatzaileak eta supermerkatuek aurreratzen dute konfinamenduaren ondoan kontsumitzaileek gutxiago gastatuko dutela, prezioak gehiago kontrolatuko dituztela eta marka zuriko produktu gehiago erosiko dutela.

Horrez gain, eta seguruenik, espero daiteke **konfinamendu honetan eskuratutako ohitura batzuek denboran iraungo dutela**, txertoa iritsi bitartean egongo den ziurgabetasun sentsazioagatik:

- **Erosketen arrazionalizazioa eta** tiketaren batez besteko balioaren igoera: Saltokira joateko maiztasuna txikiagoa izango da eta joaten den bakoitzean gehiago erosiko da.
- **Sukaldean emango den denbora** gehiago izango da.
- **Hurbilago dauden kanalei** eta denda tradizionalei lehentasuna emango zaie.
- **Online kanala** sendotuko da: Produktu freskoen online salmentak ere asko igoko dira.
- Etxe barruko kontsumo unekak gehiago izango dira: **Otorduen arteko mokaduek** jarraituko dute, "normaltasun"-eko aldiak eta "erdikonfinamendu"-ko aldiak konbinatu behar diren bitartean.



## 7 AMIA ANALISIA

AHULEZIAK		MEHATXUAK	
A1	- Sektore oso atomizatua eta tradizionala.	- Ekonomiaren dezelerazioa eta langabeziaren igoera. Erosketa ahalmena txikitzea.	M1
A2	- Lehiakortasun gutxi sektore batzuetan. Ekoizpen kostu handiak (eskulana, elikadura kostuak, etab.)	- Likidezirik ez. Finantzaketarako zailtasunak.	M2
A3	- Ostalaritzako sektore zurruna, hauskorra eta oso zaugarria zikloekiko.	- Ostalaritzako sektorearen eta turismoaren suspertze berantiarra. Ziurgabetasuna biziraupen mailan eta beste eredu batzuekin ordeztuak izateko arriskua (frankiziak, etab.)	M3
A4	- Kanalen arteko interdependentzia maila altua.	- Ziurgabetasuna kontsumo ohituretan eta joeretan	M4
A5	- Lankidetzeta eta elkarlan gutxi balio kateko maila guztien artean. Ikuspegi orokorrik ez eta interes komunik ez.	- Erosketaren arrazionalizazioa/planifikazio handiagoa herritarren aldetik, erosketa inpulsiboak gutxituko dira.	M5
A6	- Profesionalizaziorik ez enpresetako eremu komertzialean. Ez dakigu gure produktua ondo saltzen. Komunikazio falta sektorean.	- Prezioaren lehentasuna kalitatearen aurretik. Marka zuriko produktuak erosteko joera. Eskaintzaren ikuspuntutik, gama oinarrizkoagoetara bueltatzea.	M6
INDARGUNEAK		AUKERAK	
I1	- Elikaduraren Balio Katea funtsezko sektoretzat hartzea, azkar erantzuteko gaitasunarekin eta malgua.	- Gero eta sentikortasun handiagoa eta biztanleria zaugarriari (adinekoak, etab.) arreta pertsonalizatua.	A1
I2	- Kultura gastronomikoa euskal nortasunaren adierazgarri gisa	- Kanalen eta banaketa moduen dibertsifikazioa, negozio aukera berriei bidea emanda (hurbiltasuna, delivery, take-away, mekauranteak, restaumarketak, online, etab.)	A2
I3	- Bertako produktu kalitatekoa eta hazteko ahalmenarekin.	- Sentsibilizazio kanpainak hurbileko produktuen kontsumorako.	A3
I4	- Administrazioaren babesa eta konpromisoa sektorearekiko.	- Estrategia komertziala indartzea, markaren balio ukiezinak agerian utzita: Iraunkorasuna, elkartasun, gizartearentzako ekarpena...	A4
I5	- Euskal produktuen posizionamendu ona eta aitortza.	- Etxetik kanpo kontsumetik etxe barrura kontsumitzera igarotzea.	A5
I6	- Esfortzuaren kultura, profesionaltasuna, ekintzailearen pentsaera, sormean, berrikuntza eta pertseberantzia.	- Tresna digitalen erabilera erraztea eta bultzatzea.	A6

## 8 TAULA ETA GRAFIKOEN ZERRENDA

1 Grafikoa.- Elikaduraren Balio Katearen Balorizazioa Euskadin.....	9
2 grafikoa.- EAEko BPGd-aren aldaketa tasak. (%).....	10
3 Grafikoa.- EAEko industri ekoizpenaren indizearen urtetik urterako aldaketa tasa. (%).....	11
4 Grafikoa.- Industriako Ekoizpenaren Indizearen bilakaera EAEn, urtaroaren osagaia kenduta. .....	12
5 Grafikoa.- EAEko industriako prezioen indizearen urtetik urterako aldaketa tasa. (%).....	13
6 Grafikoa.- Industriako Prezioen Indizearen bilakaera EAEn. ....	14
7 Grafikoa.- EAEko txikikazko merkataritzaren indizearen urtetik urterako aldaketa tasa. (%)..	15
8 Grafikoa.- EAEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urtetik urterako aldaketa tasa. (%).....	16
9 Grafikoa.- Gizarte Segurantzako afiliatu kopuruaren bilakaera EAEn.....	17
10 Grafikoa.- Kontsumoko Prezioen Indizearen bilakaera EAEn.....	18
11 Grafikoa.- Elikaduraren Balio Katearen egitura .....	21
12 Grafikoa.- Elikaduraren Balio Katearen balorizazioa Euskadin .....	21
13 Grafikoa.- Estatuko etxeetako erosketen bilakaera konfinamendu aldian. ....	27
14 Grafikoa.- Etxeetan egindako produktu freskoen erosketen bilakaera Estatuan.....	29
15 Grafikoa.- Estatuko salmenten bilakaera banaketa kanal motaren arabera. ....	30
1 Taula.- Barne Produktu Gordinaren bilakaera Europan (Aldaketaren %).....	7
2 Taula.- Guztirako inbertsioaren bilakaera Europan (aldaketaren %).....	7
3 Taula.- Enpleguaren hazkundea Europan (%) .....	8
4 Taula.- Langabeziaren bilakaera Europan (%).....	8
5 Taula.- Inkestaren erantzunen banaketa enpresen tamainen arabera .....	20
6 Taula.- Kontsumoaren asteroko bilakaera produktu kategoriaren arabera.....	28